

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
1. Ahozko testu sinpleak eta testuinguru batean jarriak ulertzea. Testu horiek lotura zuzena izan behar dute ikaslearen bizipenekin eta gelako jarduera arruntekin, eta ohiko generoak landu behar dituzte. Horrekin batera, testu horien informazio garrantzitsua bereiztea eta ulertutakoa beste egoera batzuetan aplikatzea.	1. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak, genero askotakoak, ulertzea, testu horien ideia nagusiez eta informazio baliagarriaz jabetzea, eta informazio horren ulermena ikas-lanetan aplikatzea.	1. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien ideia nagusiak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea eta informazio horren ulermena ikaste-lanetan aplikatzea.
1.1. Ea testuko gaia antzematen duen. 1.2. Ea gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta informazio zehatz batzuk ulertzen dituen. 1.3. Ea testuaren oinarritzko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua interpretatzen duen, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko. 1.4. Ea entzundako testu baten oinarritzko ideia batzuk gogoratzen dituen, eta ahoz adierazten dituen, galdera zuzenei erantzunez. 1.5. Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan. 1.6. Ea emandako aginduei edo jarraibideei jarraitzen dien, jarduerak egiteko. 1.7. Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.	1.1. Ea gelan landutako ahozko testuen generoak ezagutzen dituen. 1.2. Ea ahozko testu baten ideia orokorra antzematen duen, komunikazio egoeran dauden eta hizkuntzakoak eta ez hizkuntzakoak diren osagaien laguntzarekin. 1.3. Ea hitz eta esaera ezagunak ezagutzen dituen, gero eta testu konplexuagoetan. 1.4. Ea antzematen dituen eskolan landutako gaiak jorratzen dituzten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusi batzuk. 1.5. Ea datu zehatzak identifikatzen eta erabiltzen dituen, hainbat jardueraosatze, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan. 1.6. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko. 1.7. Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.	1.1. Ea ahozko testuen genero ohikoak ezagutzen dituen. 1.2. Ea gaia eta igoeraren helburua antzematen dituen. 1.3. Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen. 1.4. Ea antzematen dituen gai akademikoak jorratzen dituzten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusi batzuk. 1.5. Ea datu zehatzak antzematen eta erabiltzen dituen, hainbat jardueraosatze, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan; eta ea horiek jasotzen dituen, informazioa erregistratzeko zenbait bitarteko erabiliz. 1.6. Ea entzundako testuen ideia nagusiak gogoratzen dituen eta hitzez adierazten. 1.7. Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.

(ATZERRIKO HIZKUNTZA)

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
2. Ikaslearen bizipenekin eta gelako ohiko jarduerekin lotura zuzena duten testu idatzi sinple eta laburrak, ohiko generotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia.	2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak, laburrak eta genero askotakoak sortzea, ereduak erabilia eta egokitasun-maila onargarria erakutsiz.	2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia.
2.1. Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen, testu horiek aurrez gelan ahoz landutako gaiet buruzkoak izanik: moldatutako edo benetako ipuinak eta poemak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak... 2.2. Ea gelan ahoz landutako gaiet buruzko testu idatzi errazen gaia antzematen duen, eta testu horien zentzu orokorrak atzematen. 2.3. Ea testuaren oinarritzko zenbait ideia gogoratzen dituen. .	2.1. Ea eredu bati jarraituta eta laguntza jasota adierazten dituen ikaste-egoerekiko ideiak eta bizipenak. 2.2. Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, ikaskuntza-egoeretan. 2.3. Ea gai ezagunei buruzko ahozko testu errazak eta laburrak (kontakizunak, azalpenak) sortzen eta azaltzen dituen, eredu jarraituta eta aurrez plangintza gidatu bat eginda. 2.4. Ea azalpena ulergarria den eta ikusizko euskarri baliatzen den. 2.5. Ea nahiko ongi intonatu eta ahoskatzen duen. 2.6. Ea ahotsa eta keinuak kontrolatzen dituen, neurriren batean.	2.1. Ea testu idatziak ulertzen dituen, gai jakinei buruzkoak: moldatutako edo benetako ipuinak eta olerkiak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak... 2.2. Ea testuaren generoa eta gaia bereizten dituen. 2.3. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen. 2.4. Ea testuaren ideia nagusi batzuk laburtzen dituen. 2.5. Ea, emandako jarraibideei atxikirik, kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen, testuko ideia nagusiak erabilia. 2.6. Ea estrategia egokiak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak. 2.7. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta edukiaren alderdi zehatzei buruzko iritzia modu sinplean ematen duen.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
3. Ahozko testu labur eta errazak sortzea, ereduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.	3. Hitzezko eta irakasleak zuzendutako elkarrekintzetan parte hartzea gelan. Interakzio-harreman horiek eduki eta garapen ezaguna izan behar dute, eta gizartean komunikatzeko arauak bete.	3. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburuari erantzunez.
3.1. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen ahozko testu erraz eta laburrak, ereduei jarraituz. 3.2. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen bere ideiak, emandako ereduko oinarritzko elementuak ordeztuz. 3.3. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.	3.1. Ea berehalako komunikazio beharrak adierazten dituen, laguntza jasota: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea. 3.2. Ea erraz ematen duen bere buruari buruzko informazioa. 3.3. Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan. 3.4. Ea gizarteko komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.	3.1. Ea dakien irakurketaren helburua zein den, eta helburu bakoitzaren arabera estrategia egokiak erabiltzen dituen. 3.2. Ea informazio-iturri analogiko eta digitalak erabiltzen dituen, laguntza jasota, hartara irakurketaren helburuari erantzuteko. 3.3. Ea informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen dituen: testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak... 3.4. Ea eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen duen, eta datuak erregistratzeko bitartekoen bidez biltzen (taulak, eskemak, galdetegiak...). 3.5. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko..

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
4. Gelan, irakasleak zuzendutako ahozko elkarrizketetan parte hartzea, elkarrizketetako oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonetikiko errespetua adieraziz. 4.1. Ea ulertzeko moduan erantzuten dien (hitzez eta hitzik gabe) eskaerei eta arauak. 4.2. Ea ulertzeko moduan (hitzez nahiz hitzik gabe) eta lagunduta adierazten dituen berehalako komunikazio-premiak: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea. 4.3. Ea ulertzeko moduan ematen duen bere buruari buruzko informazioa, hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza-baliabideak erabilia, eta laguntza jasota. 4.4. Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan. 4.5. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrizketetan, galderei erantzunez eta elkarrizketa-gaiarekin lotutako iruzkinak eginez. 4.6. Ea gizartean ohiko diren komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea. 4.7. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.	4. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatzi errazak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia. 4.1. Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen, testu horiek gelan landutako gaiei buruzkoak izanik: moldatutako edo benetako ipuinak eta olerkiak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak... 4.2. Ea testuaren generoa eta gaia bereizten dituen. 4.3. Ea testu idatzi arruntan esanahi orokorra hartzen duen. 4.4. Ea, lagunduta, testuaren ideia nagusiak antzematen dituen. 4.5. Ea datu zehatzak antzematen eta erabiltzen dituen, hainbat jarduera osatzeko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan. 4.6. Ea estrategia sinpleak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak. 4.7. Ea, lagunduta, bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta edukiaren alderdi zehatzei buruzko iritzia modu sinplean ematen duen..	4. Era egokian parte hartzea, gelan, hitzezko harremanetan, gai ezagunei buruz eta arau sozio-komunikatiboak errespetatuz. 4.1. Ea berehalako komunikazio-beharak adierazten dituen: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea. 4.2. Ea bere buruari buruzko informazioa ematen duen. 4.3. Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan. 4.4. Ea gizarteko komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
5.- Idatzi oso labur eta errazak sortzea, erduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan. 5.1. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen testu idatzi erraz eta laburrak, erduei jarraituz. 5.2. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen bere ideiak, emandako ereduko oinarritzko elementuak ordeztuz. 5.3. Ea testuak sortzeko lanetan laguntzen duen. 5.4. Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarritzko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat. 5.5. Ea gelan landutako zenbait ortografia-arau aplikatzen duen. 5.6. Ea bere idazlanen txukuntasuna zaintzen duen. 5.7. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.	5. Informazio esplizitua aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko. 5.1. Ea, informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen dituen: irudiak, testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak... 5.2. Ea, jarraibideak betez, informazio esplizitua hautatzen duen, eskolako testuen irakurketa-helbururako adierazgarria den neurrian. 5.3. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.	5. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak eta genero askotakoak sortzea, ereduak erabilia eta egokitasun-, kohesio eta zuzentasun-maila onargarria erakutsiz. 5.1. Ea, erduez lagunduta, ahozko testu errazak sortzen dituen gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren. 5.2. Ea komunikazio-egoera bakoitzaren oinarritzko ezaugarrietara moldatzen dituen bere sorkuntzak, kontuan hartuz alderdi formal nagusiak. 5.3. Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, bai hedabideen, bai ikaskuntzaren giroan. 5.4. Ea oharrik, eskemarik eta gidoirik erabiltzen duen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko. 5.5. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
6. Laguntza jasota, informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilpen horren xedea ikastea izanik. 6.1. Ea informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabili. 6.2. Ea programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzen dituen, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.	6. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatzi erraz eta laburrak, genero askotakoak, sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, lagunduta: plangintza egitea, idaztea eta berrikustea. . 6.1. Ea, ereduez lagunduta, testu sinpleak idazten dituen gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren, paperean eta euskarri digitalean. 6.2. Ea eredu bati jarraituz literatura-testu xumeak birsortu eta berrikusten dituen; adibidez, komikiak, poema eta antzezlan txikiak eta ipuin laburrak. 6.3. Ea kontsultako materiala erabiltzen duen paperean eta euskarri digitalean. 6.4. Ea sortze eta berrikuste-lanetan laguntzen duen. 6.5. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua. 6.6. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.	6. Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, koherentzia-, zuzentasun-eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz. 6.1. Ea, ereduez lagunduta, testu xumeak idazten dituen gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren, paperean eta euskarri digitalean. . 6.2. Ea komunikazio-egoera bakoitzaren oinarritzko ezaugarrietara moldatzen dituen bere sorkuntzak, kontuan hartuz alderdi formal nagusiak. 6.3. Ea eredu bati jarraituz literatura-testu xumeak birsortu eta idazten dituen; adibidez, komikiak, poema eta antzezlan txikiak eta ipuin laburrak. 6.4. Ea paperean eta euskarri digitalean dagoen kontsulta-materiala erabiltzen duen zalantzak argitzeko eta hipotesiak baieztatzeko. 6.5. Ea sortze eta berrikuste-lanetan laguntzen duen. 6.6. Ea oinarritzko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko. 6.7. Ea oinarritzko gramatika eta ortografia-arau batzuk aplikatzen dituen. 6.8. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua. 6.9. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
7. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea, eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko. 7.1. Ea gelako komunikazio-trukean, egoki bereizten eta ereduaren antzera errepikatzen dituen ahoskerari, erritmoari, azentuari eta intonazioari dagozkion oinarritzko zenbait arau. 7.2. Ea irakasleak hautatutako formazko zenbait alderdi garrantzitsu ezagutzen dituen, eta horiei buruzko gogoeta egiten hasi den. 7.3. Ea ikasturtean landutako oinarritzko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen duen. 7.4. Ea, jarraibideak emanda, testuak ulertze eta sortze-prozesuan landutako hizkuntzei buruzko jakintzak eta ortografia-arauak aplikatzen hasia den. 7.5. Ea dagokien komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak... 7.6. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (aurrez emandako adibideak eta ereduak), sortze-prozesuko zalantzak argitzeko. 7.7. Ea jarraibideei atxikita, bere testuetako oinarri-oinarritzko akatsak ezagutzen eta zuzentzen hasia den.	7. Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako pertsonekin hitz egiteko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta hizkuntza hori ikasteko tresna gisa erabiltzea 7.1. Ea gogotsu hartzen duen parte gelako komunikazio-trukean. 7.2. Ea ikasteko tresna gisa erabiltzen duen atzerriko hizkuntza. 7.3. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna aberastasuntzat hartzen duen. 7.4. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan. 7.5. Ea jakin-minik eta errespeturik adierazten duen atzerri-hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.	7. Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako pertsonekin hitz egiteko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta hizkuntza hori ikasteko tresna gisa erabiltzea. 7.1. Ea gogotsu hartzen duen parte gelako komunikazio-harremanean. 7.2. Ea atzerriko hizkuntza, ikasteko tresna gisa erabiltzen duen. 7.3. Ea atzerriko hizkuntza erabiltzen duen jendarteko harremanak finkatzeko eta eskolen arteko postaren bidez proiektuetan aritzeko, bai ahoz bai idatziz, teknologia berriak erabiliz. 7.4. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna aberastasuntzat hartzen duen. 7.5. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
8. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den, eta komunikazio-egoera hainbatetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea. 8.1. Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarritzko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat. 8.2. Ea testu moten ezaugarriei buruz beste hizkuntza batzuetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.	8. Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitate eta kultura batzuk aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak ezagutzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz. 8.1. Ea ezagutzen dituen atzerri-hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk; laguntza emanda egingo da jarduera hori. 8.2. Ea kanpoko eta bertako elementu soziokulturaletako batzuk erlazionatzen dituen, kulturarteko kontzientzia garatzeko. 8.3. Ea desberdintasuna errespetatu eta altxortzat hartzen duen.	8. Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitateak eta kulturak aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak ezagutzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz. 8.1. Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk. 8.2. Ea kanpoko eta bertako elementu soziokulturalak erlazionatzen dituen, kulturarteko kontzientzia garatzeko. 8.3. Ea desberdintasuna errespetatu eta altxortzat hartzen duen.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
9. Atzerriko hizkuntzarekiko interesa eta jakin-mina adieraztea, komunikaziorako bide eta ikasteko tresna den aldetik.	9. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruz gogoeta egitea (testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz), eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.	9. Lagunduta, informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horiek erabiltzeko interesa adieraziz.

9.1. Ea gogotsu parte hartzen duen gelako komunikazio-truke xumeetan. 9.2. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna onartzen duen. 9.3. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan. 9.4. Ea jakin-minik daukan atzerri-hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.	9.1. Ea ereduaren antzeko ahoskera, erritmoa, azentua eta intonazioa ezagutu eta errepikatzen dituen, bai gelako komunikazio-trukean, bai gogoz entzuterakoan eta bai ozen irakurtzerakoan. 9.2. Ea testuak edo esaldiak osatzen eta eraldatzen dituen, emandako irizpideei jarraituz. 9.3. Ea ikasturtean landutako oinarritzko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen duen. 9.4. Ea jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen dituen, testuak ulertzeko eta sortzeko. 9.5. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak... 9.6. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (aurrez emandako adibideak eta ereduak, bere hiztegia), sorrera-prozesuko zalantzak edo testuen berrikuspenekoak argitzeko. 9.7. Ea bere eta besteren testuetako oinarri-oinarritzko akatsak identifikatu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabilita.	9.1. Ea informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten dituen, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz. 9.2. Ea testu-prozesadoreen oinarritzko funtzioak erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko. 9.3. Ea behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten dituen eskola-jardueretan landutako informazio errazak, informazio eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita. 9.4. Ea harreman pertsonalak egiteko erabiltzen dituen informazio eta komunikazio-teknologiak.
---	---	--

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
10. Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko. 10.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak (narrazioak eta olerkiak) entzuten eta ulertzen dituen. 10.2. Ea eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzen hasi den. 10.3. Ea gogotsu parte hartzen duen olerkiak, abestiak eta ipuinak antzeztzen, birstortzen, buruz ikasten eta errezitatzen. 10.4. Ea, laguntza jasota, testuari buruzko iritzia ematen duen, hitzez eta modu sinplean. 10.5. Ea liburutegian irakurtzea sustatzeko egiten diren jardueretan parte hartzen duen. 10.6. Ea gelako liburutegia erabiltzeko arauak betetzen dituen eta hura zaintzen eta erabiltzeko moduan mantentzen laguntzen duen.	10. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi pertsonal batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea. 10.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen. 10.2. Ea hiztegi irudidun eta elebidunez gainera baliabide teknologiko xumeak erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko. 10.3. Ea bere aurrerapenen balorazio xumeak egin, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen dituen. 10.4. Ea hitzetik hortzera eta autonomia pixka batekin erabiltzen dituen eguneroko egitura xumeak. 10.5. Ea gero eta hobeto ezagutzen eta zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait. 10.6. Ea akatsak egitea ikasprozesuaren parte dela onartzen duen.	10. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak sortzeko eta laguntzaz berrikusteko. 10.1. Ea gelako komunikazio-trukean, ereduaren antzera eta zuzentasunez errepikatzen duen ahoskera, erritmoa, azentua eta intonazioa. 10.2. Ea ahoskera, erritmo, azentu eta intonazio egokiko mezuak sortzen dituen gelako jardueretan. 10.3. Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz. 10.4. Ea ikasturtean landutako oinarritzko terminologia ezagutzen eta erabiltzen duen. 10.5. Ea, jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen dituen, testuak ulertzeko eta sortzeko. 10.6. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak... 10.7. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko. 10.8. Ea bere eta besteren testuetako akats nagusiak ezagutu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabiltza.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
11 Ikasten ikasteko estrategia nagusiak erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea. . 11.1. Ea laguntza eta azalpenak eskatzen dituen. 11.2. Ea hiztegi irudidunak erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko eta hitzen esanahiak bilatzeko. 11.3. Ea egin dituen aurrerapenen balorazio oinarritzkoak egiten dituen. 11.4. Ea akatsak egitea ikas-prozesuaren parte dela onartzen duen.	11. Laguntza jasota, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan. 11.1. Ea ebaluazio-irizpideak zehazteko kontrol-zerrendak ezagutzen dituen, eta horiek erabiltzen hasi den. 11.2. Ea, jarraibideak betez, berrikuspen-lanetan parte hartzen duen eta bere sormen-lanak hobetzen ari den. 11.3. Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.	11. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den, eta komunikazio-egoeretan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea. 11.1. Ea irakasleak hautatutako alderdi formal esanguratsu batzuk ezagutu, horiei buruz gogoeta egin eta aplikatzen duen bere ahozko eta idatzizko lan lagunduetan. 11.2. Ea kategoria gramatikal, esaera eta hitz batzuk konparatzen dituen dakizkien hizkuntzetan. 11.3. Ea testu moten ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
12. Laguntza jasota, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan. 12.1. Ea irakasleak lagunduta, autoerregulazioko zenbait estrategia erabiltzeari ekin dion.	12. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den eta, komunikazio-egoeretan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea. 12.1. Ea irakasleak hautatutako alderdi formal esanguratsu batzuk identifikatu, horiei buruz gogoeta egin eta aplikatzen dituen bere ahozko eta idatzizko lan lagunduetan. 12.2. Ea esaera eta hitz batzuk konparatzen dituen dakizkien hizkuntzetan. 12.3. Ea testu-generoen ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.	12. Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko. 12.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak irakurri edo entzuten dituen, eta bere irizpideak azaltzen, irakurgaiak hautatzerakoan. 12.2. Ea liburutegia, mediateka edota Internet erabiltzen duen. 12.3. Ea gogotsu parte hartzen duen –erritmo, ahoskera, azentu eta intonazio egokiz antzezteko, testuak birsortzeko, eta horiek buruz ikasteko eta errezitatzeko lanetan, antzezpeneraren estrategia sinpleak erabiliz. 12.4. Ea hitzez eta idatziz adierazten duen testuari buruz duen iritzia, modu sinplean.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
	13. Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko. 13.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak irakurtzen edo entzuten dituen (narrazioak eta olerkiak), eta bere irizpideak azaltzen hasia den, irakurgaiak hautatzerakoan. 13.2. Ea gogotsu parte hartzen duen errimak, abestiak, aho-korapiloak, asmakizunak, ipuinak edo antzezlan txikiak antzeztzen, birsortzen, buruz	13. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea. 13.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen. 13.2. Ea hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko. 13.3. Ea egin dituen aurrerapenak neurtzen dituen, eta hobeto ikasteko baliabide eta estrategia batzuk ezagutzen dituen. 13.4. Ea bere kabuz erabiltzen dituen egunero bizitzako testuen egitura sinpleak, akatsik arruntenak pixkanaka

	ikasten eta erreztatzen (erritmo, ahoskera, azentu eta intonazio egokiz), horretarako antzezpenaren estrategia sinple batzuk erabiliz. 13.3. Ea gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen duen. 13.4. Ea testuari buruzko iritzia ematen duen, hitzez eta modu sinplean.	zuzenduz. 13.5. Ea akatsak egitea ikasprozesuaren parte dela onartzen duen.
--	--	---

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
		14. Laguntza emanda, norberaren eta gainerako ikasleen ikaskuntza-lanaren ebaluazioan parte hartzea (autoebaluazioa, koebaluazioa), jarrera gogotsua erakutsiz. . 14.1. Ea ezagutzen eta erabiltzen dituen ebaluazio-irizpideak zehazteko kontrol-zerrenda errazak. 14.2. Ea dakien zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren. 14.3. Ea, jarraibideak emanda, parte hartzen duen norberaren nahiz besteren sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta ea balioesten dituen gainerako pertsonen egindako ekarpenak. 14.4. Ea erabiltzen dituen, lagunduta, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.